

Orotarik pixka bat



Lehendakaria asiarra izatearen kontu horrek aspaldiko pasadizo bat ekarri dit akordura. Las Palmasen nengoen, euskaldun eta kanariarren artean, hondartzan dagoen jatetxe indiar batean. Jatetxea lepo zegoen eta nekez ailegatzen ziren zerbitzariak mahaietan geunden guztion afaldu nahia asetzera. Janaria ailegatu bitartean, pasealekura so entretenitu ginen berrikeretan. Lurrean eserita emakume beltz gizen bat zegoen oihal zabaldu batean zeuzkan lau gauza kaskar —anteoju pare bat, giltzarrapo bat, painueloren bat— nork erosiko zain.

—Afrika gaixoa— esan zuen gure adiskide kanariarrak.

Berehala alderatu genuen —klixeak hitz egiteko behintzat balio zuen— jatetxe asiarrereko giro builatsua emakume afrikarraren negozioarekiko —segur aski amestu ere ezin izanen zuen jatetxe kamerundar batekin— ikuspuntu eskasiarekin.

Ez dakit gauza askorik ekonomiari buruz, baina adituek diote enpresa europarrek eta amerikarrek Afrikan inbertitu ere ez dutela egin nahi, eta asiarrak ari direla Kamerun, Niger eta abarren jabe egiten.

Asia, aldiz —berriz ere diot, klixeak txikle, beste hark esaten zuen moduan—, jende lanpetuaren tokia da; hainbeste etxe barneko negozioak espaloiak ere jaten ditu, Hanoi bezalako hiriak adibide.

Halakoetan galdetzen diot nire buruari egunaren zein partetan uzten duten alde batera lan bizitza eta hasten den bizitza pribatua deitzen den hori.

Segur aski biak txirikordatzen dituzte eten gabe, noiz diren batean eta noiz bestean gehiegi zehaztu gabe.

Bizitza pribatuaren afera hori asko interesatzen zait. *Historia de la vida privada* liburua (Duby, Georges, Aries,



Juanjo Olasagarre

Agirre

Apalategi

Philippe) erostekotan ibili naiz aspalditik, baina ez dut egin eta orain faltan dut. Dena dela, iruditzen zait gure bizitza pribatuaren kontzeptzioa gizarte burgesean sortua dela, eta talka egiten duela bai Afrikan bai Asian hori ulertzeko dagoen moduarekin.

Badakizue, esaterako, Txinako komun publikoetan bes-teen ondoan egin behar duzula

kaka, batere pribazitaterik gabe? Aldiz, ez dago gaizki ikusita zenbat irabazten duzun eta zenbat diru duzun aipatzea. Euskaldunon artean aldiz oso tabu den gaia da diruarena. Gure buruak, gure sublimean, dirua bezalako gauza arruntez aritzeak beheratzen dituelako, segur aski.

Nolanahi ere, aspaldi da gure gizartearen publikoa eta pribatua nahasten direla. Literaturan, demagun, fikzioa ahiturik omen dago eta autofikzioa omen da orain egin beharrekoa. Vila-Matasen *Dietario Voluble* irakurri berri dut —gustuko dudak idazlea—. Eta gozatu badut ere, liburuak ez dio Andres Trapiellok bere *Salon de Pasos Perdidos* edo Sanchez Ostizek bere dietarioetan egindakoari ezer gehitzen, berritasun asmoak berritasun. Are gehiago, atzerago joz makina bat gehiago aipa daitezke, horien artean Flaubert eta Kafka. Edo Mishima bera. Asiaz ari garela harira datorren idazle bat aipatzeagatik.

Bai, ongi etorriko litzaiyuke asiar jatorriko lehendakari euskaldun bat. Baina pentsatzen jarrita zergatik ez afrikarra, zergatik ez hegoamerikarra, edo ozeaniarra? Zurita-

sun heterosexual abertzale honetatik aterako gintuzkeen edozein ongi legoke: marikita izan, edo emakume gizon jalea, lesbiana kamioi bat, emakume beltz transa, diasporako euskaldun estatubatuarra. Bai, zuritasun heterosexualaren parodia eginen lukeen edozein. ■

Zuritasun heterosexual abertzale honetatik aterako gintuzkeen edozein ongi legoke: marikita izan, edo emakume gizon jalea, lesbiana kamioi bat, emakume beltz transa, diasporako euskaldun estatubatuarra. Bai, zuritasun heterosexualaren parodia eginen lukeen edozein